

18. GAIA: “Kontratu bidezko oinordetza eta oinordetza bereziak”

I.-ARAUDIA

-Kode Zibila.

-Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Legea eta Nafarroako Foru Berria.

-Nekazaritza-erreforma eta garapenari buruzko Legea, 1973ko urtarrilaren 12koa. 19/1995 Legea, uztailaren 4koa, Nekazaritza Ustiategiak Modernizatzeari buruzkoa.

II.-KONTRATU BIDEZKO OINORDETZA: OINORDETZA ITUNAK

Oinordetza osoa edo zati bat antolatzeko moduen artean, alde biko negozioa ere topa daiteke alde bakarreko negozioaren ondoan: kontratu bidezko oinordetza. Kausatzaileak oinordekoarekin itundu egiten du honen izendapena eta, kasuz kasu, bere izendapenari dagozkion ondasunak ere transmititzen dizkio, bere oinordetzaren kontura. Oinordetza antolatzeko modu honen berezitasuna, printzipioz, bere ERREBOKAEZINTASUNA da, alde biko negozio juridikoa den heinean [nahiz eta suposamendu zehatz batzuetan kausatzailea baimendua egon izendapena errebokatzeko].

Oinordetza itunak Kode zibilean debekatuak daude (1.271.II, 658, 816, 991 eta 1.674 art) salbuespen batzuk kenduta (826, 827 eta 1.341 art). Baina ZUZENBIDE PIRENAIKOA deritzonak mendetan zehar erabili izan duen tresna izan da familiaren ondarea batuta mantentzeko, ondorengo bakar baten eskuetan. Egun ere, ordenamendu hoiek dira ituna baimentzen dutenak (Euskal Autonomia Erkidegoko Legeak, Nafarroako Legeak, Katalunyako Kodeak, Aragoako Legeak, Galiziakoak eta Balear Uhartekoak). Azter ditzagun geureak, bederen: EHFZZL eta Nafarroako Foru Berria, hain zuzen ere.

1.1. Bizkaiko araudia: EHFZZLko 74-83 artikulua

Kontzeptua: Ezkontza-hitzarmenez, dohaintzaz edo Eskribau aurreko eskritura bitartez egindako itunez bana daitezke jarauntsiko ondasunak, guztiak edo batzuk, bertan agindutako era, gordekizun, ordezkatzeko, itzultze-hizpaketa, zorpe eta betekizunekin. Eskritura-egileek, gainera, dauzkaten ondasun guztiak edo batzuk unean bertan eskualdatzea zein hildakoan egin dadila erabaki dezakete (EHFZZLko 74. atala). Horren pareko dira ere: *Mortis causa* egindako ondasun jakin baten dohaintza oinordetza-ituntzat joko da; baita *inter vivos* ekintzaren bidezko ondasun guztien dohaintza ere, besterik hitzartu ezean (EHFZZLko 76. atala). Hala ere, oinordetza-ituna aipamenarekin nahikoa litzateke, ezkontza-hitzarmena eta Eskribau aurreko eskritura ituna egilesteko moduak besterik ez baitira. Zaharkitua geratu da adierazpena, beste ordenamendu juridiko batzuen alboan.

Oinordetzako itunen eraginak:

(1) Ondasunen oinordekoa oinordetza-itunez izendatzen bada, indarririk gabe geratuko da aurretik testamentu bitartez egindako edonolako ondasun-banaketa. Izendapen hori, egin dutenen edo euren ondorengoen arteko itun berri batez baino ezin izango da aldatu ezta iraungi ere eta, betiere, alde biek itundutako arrazoiengatik baino ez (EHFZZLko 75. atala).

(2) Ondasunak unean bertan eskualdatzeko egiten den oinordeko-izendapenak ondasunon jabetza ematen dio oinordekoari, izendatzailearen, familiaren zein ondasunen irabazpidearen mesedean alde biek hitzartutako muga-baldintzekin. Horregatik, edonolako erabaki edo karga-ekintzak izendatzailearen eta izendatutakoaren arteko adostasun baterakoa beharko du baliozkoa izateko, bestelako itunik ezean (EHFZZLko 77. atala).

(3) Hil ostean indarra izan dezan egindako oinordeko-izendapenak ondasunon oinordeko izaera ematen dio izendatutakoari eta berak ezin izango du ez inorendu ez zorpetu. Ezkontzeko dagoen seme edo alaba izendatu bada oinordeko, honek bere seme-alabei edo ondorengoei bana diezaieke ondasunok dohain, *inter vivos* edo *mortis causa* ekintzen bidez. Izendatzaileek ondasunon jabe izaten jarraitzen badute ere, ordainbidez baino ezin izango dituzte ondasunok banatu (EHFZZLko 78. atala).

Oinordetzeko itunak errebokatzea: Izendatzaileek honako hauetan ezeztatu ditzakete izendapena: 1. Itundutako arrazoiengatik. 2. Jarritako zorpe eta baldintzetan ez betetze larria egin izanagatik. 3. Izendatutakoak ezgaitzeko edo oinordetza galtzeko arrazoi

direnetakoren bat egin badu. 4. Izendatutakoak familiakoen eguneroko elkarbizitza galaraziz jokutzen badu. 5. Izendatutakoaren ezkontzaren banantze, baliogabekotze edo dibortzioa gertatuz gero, oinordetza-ituna ezkontzagatik egin denean (EHFZZLko 79. atala).

Suntsiarazteko aukera, berriz, honela arautzen da: *Oinordeko izendapena honako hauetan iraungiko da: 1. Izendapena baldintzatzen zuen iraungitze-kasua jazoz gero. 2. Izendatutakoa ondorengorik gabe hiltzen denean. 3. Izendatzaileen erabakiz, Eskribau-eskrituraz gauzatuta (EHFZZLko 80. atala). Eraginak hauek izango dira:*

(1) *Eragin orokorra: Aurreko ataletan aipatutako kasuetan, euren kontura egindako hobekuntzen eta gehikuntzen eguneratutako balioa ordaindu beharko zaie izendatutakoei urtebeteko epean (EHFZZLko 81. atala).*

(2) *Izendatua aurrez hiltzen bada: Ezkontzera doanen bat oinordeko izendatzen bada eta izendatutakoa arinago hiltzen bada, berari dagokion eskubidea seme-alabei eta ondorengoei eskualdatuko zaie. Izendatutakoa ondorengorik utzi gabe hilko balitz, izendatzaileari itzuliko litzaizkioke unean bertan eskualdatzeko itunpeko ondare edo ondasunak (EHFZZLko 83. atala).*

Izendatzaileak eta izendatuak **elkarrekin bizitzea** erabaki badute: *Izendatzaileek eta izendatutakoek elkarrekin biziko direla edo gozamen-eskubidea zein antzerako beste ahalmenen bat ez galtzea itundu badute izendatzaileen alde, bietako bat hilda bere alargunak osorik eta bizi den artean gordeko ditu eskubideok (EHFZZLko 82. atala).*

1.2. Gipuzkoako araudia: EHFZZLko 179-188 artikulua

Kontzeptua: *Baserriaren eta hari lotutako ondasunen ordenazioa eskritura publikoaz egindako oinordetzako itunaren bidez egin ahal izango da. Itungileek ezkontzako hitzarmeneko eskritura erabil dezakete helburu horretarako (EHFZZLko 179. atala).*

Oinordetza-itunen eraginak:

(1) *1. Oinordetzako ituna, baserria eta hari lotutako ondasunak presenteko eskualdaketaz edo izendatzailea hiltzen den unera arte geroratuaz egin ahal izango da. 2. Baserriaren eta hari lotutako*

ondasunen mortis causako dohaintza oinordetzako ituntzat hartuko da (EHFZZLko 180. atala).

(2) Baserria eta hari lotutako ondasunak unean bertan eskualdatzeak oinordeko izendatua izan dena haien titular bihurtzen du, itundutako mugen barruan. Ondasun horien gaineko xedapenik edo kargarik dakarren egintza oro baliozkoa izateko, izendatzailearen eta izendatuaren adostasuna beharko da (EHFZZLko 181. atala).

(3) Oinordekoa eskualdaketa geroratu izendatu den kasuetan, izendatzaileak kostu bidez bakarrik xeda ditzake baserria eta hari lotutako ondasunak (EHFZZLko 182. atala).

(4) Oinordekoa oinordekotzako itunaren bidez izendatzen bada, testamentuz aurretik emandako xedapen guztiak eraginik gabe geldituko dira. Elkarrekiko testamentua egin bada liburu honetako 175. ataletik 178. atalera bitartekoetan ezarritakoa aintzat hartuko da (EHFZZLko 183. atala).

Oinordetzako itunak alda daitezke: *Oinordekotza itunaren bidez egindako izendapena, bakar-bakarrik izendatzailearen eta izendatuaren, edo izendatuaren ondorengoan, arteko beste itun baten bitartez edo ondorengo bi ataletan ezartzen diren kausez aldatu edo eraginik gabe utzi ahal izango da (EHFZZLko 184. atala).*

Honako hauek dira **itunak errebokatze** **kausak:** *Izendatzaileak izendapena erreboka dezake: 1.a Itundutako kausak direla medio. 2. Ezarritako kargak eta baldintzak era larrian bete gabe uzten badira. 3. Izendatua ezduintasun edo desjaraunspen kausan sartzen bada. 4. Izendatuaren jokabideak familiako bizitza normala eragozten badu. 5. Izendatuaren ezkontza deuseztatuz gero, edo izendatua, banandu edo dibortziaz gero, oinordetzako ituna ezkontza hori dela eta eman bada (EHFZZLko 185. atala).*

Suntsiarazteko aukera, berriz, honela arautzen da: *Oinordetzako izendapena indargabetu egingo da: 1. Izendapena atxikia dagoen baldintza indargabetzailea betetzen bada. 2. Izendatua ondorengorik utzi gabe hiltzen bada edota, ondorengoak utzita ere, izendatzaileak ordezkapen eskubidea ukatu bazien (EHFZZLko 186. atala).* Kasu horietan guztietan, honako eragin hau sortuko da: *Aurreko bi ataletan adierazitakorik gertatuz gero, izendatuak ordainduta egindako eraikin berrien eta hobekuntzen balio eguneratua ordaindu beharko litzateke urtebeteko epean (EHFZZLko 187. atala).*

Izendatzaileak eta izendatuak **elkarrekin bizitzea** erabaki badute: *Tokian tokiko usadio eta ohiturari jarraituz, izendatzaileek, edo izendatzaileak eta bere ezkontideak, eta izendatuak eta bere ezkontideak elkarbizitza itundu badute, aurreneko haietakoren bat hiltzen bada, bizirik gelditu den ezkontideak itunean gorde dituzten*

eskubideak eta prerrogatibak beren osoan izaten jarraituko du (EHFZZLko 188. atala).

1.3.-Aiarako araudia: EHFZZLko 134. artikulua

Aiarako Foru zibilean artikulua bakarra da oinordetza ituna zeharka aipatzen duena: *Foru-herritasuna daukatenez ondasunak askatasun osoz xedatu ditzakete, guztiak ala batzuk bakarrik, testamenduz, agintzaz nahiz dohaintza bidez, derrigorrezko oinordekoak handiaz nahiz txikiaz baztertu ondoren, on ala hobe eritziagatik.* Dohaintzaren erreferentzia da, doktrinaren eritziak, itunari lekua uzten diona oinordetza antolatzekeo tresnen artean, dohaintza, baita, oinordetza-itunaren aitzindaria gure Erdi Aroko Foruetan.

1.4.-Nafarroako araudia: Foru Berriko 172-183 legeak

Nafarroako araudian hainbat oinordetza itun aurki ditzakegu: **oinordetza itunak**, Foru Berriko II. Liburuko IV. Tituluan arautuak daudenak (172-183 legeak), **propter nuptias dohaintzak**, lege beraren I liburuko XI. Tituluan aurkitzen direnak (112-118 legeak) eta **mortis causa dohaintzak** (165-171 legeak), hauek ere Foru berriaren daudenak, III kapituluan hain zuzen ere. Lehenengoei jarriko diego arreta gai honetan.

Kontzeptua 172 legean jasotzen da. Dio, kausatzailearen bizitzan, oinordetza eskubideak, *mortis causa* bidezkoak, ezarri, iraungi, aldatu edo uko egin dakikeen itunak egin daitezkeela, kausatzailearen bizitzan. Gaineratzen du, hala ere, eskubide hauek oinordeko batek hirugarren bati itun bidez besterentzeko, kausatzailearen oniritzia behar dela.

Ezkontz kapitulazio edo eskritura publikoetan eman behar dira (174 leg.). Gaitasunari dagokionez, adin nagusitasuna derrigorrezkoa da (178 leg.). Ezkontz kapitulazioak egiteko gaitasunaren gainean 78 legera egiten du igorpena.

Izendapen itunen gaineko xedapen bereziak

Itunen edukia honakoa izan daiteke:

1. Izendapenaren aldebarrekotasuna edo aldebikoiztasuna
2. Itunetan familia elkarbizitzaren gaineko akordioak jar daitezke
3. Ondasunen *inter vivos* transmisioa egonez gero, izendapena egiten duenak dituen erreserbak
4. Itunen onuradun izan daitezkenen aipamena
5. Izendapena zuzenean egiten den edo zeharka. Zeharka egiten bada, izendatua zehazteko erregelak.

Errebokaezintasuna

Izendapena aldebakarrekoa bada 114 legea aplikatuko zaie, honen arabera beharrezkoa izango delarik dohaintza jaso duenaren onarpena. Aldebikoak badira eta sinatzailea onuraduna bada, errebokaezinak izango dira.

Heriotza unera transmisioa atzeratzen duten itunak

Bizkaiko berdina da arlo honen arauketa.

Besterentze eskubidea

Hemen arauketa Bizkaikoaren antzekoa da, baina berezitasun batekin: aurrez hil den izendatuak, ondorengo bat baino gehiago badu, izendapena egin dutenek edo hauetan bizirauten duenak aukeratuko dute ondorengoetako zein izango den izendatua. Ondorengoa bakarra bada, honek ordezkaturiko du hildakoa (180. legea.).

Errebokazioa eta aldatetak

Printzipioz errebokaezinak dira itunak. Baina, alderdien akordioz, bai *inter vivos* eta bai *mortis causa* eman daiteke erreszizioa. Baita, 118 legeko kausaren bat ematen bada. Kapitulazioetan hitzartu badira 81 legeara jo behar da.

Oinordekoa izendatzeko promesa

Izendatutzat emango da oinordetza itunean prometitu bada oinordeko izendatuko dela (183 leg.).

III.-OINORDETZAREN ANTOLAKETA **HIRUGARRENEEN ESKU UZTEA: KOMISARIOA** **IZENDATZEA**

Xedapenez, hirugarreneen esku utz daiteke oinordetza antolatzea. Zuzenbide zibil autonomikoetan, honako kasu hauetan onartzen da: komisario bidez, fiduziario bidez eta ezkontide bidez.

Kode Zibilak debekatu egiten du: *el testamento es un acto personalísimo: no podrá dejarse su formación, en todo ni en parte, al arbitrio de un tercero, ni hacerse por medio de comisario o mandatario. Tampoco podrá dejarse al arbitrio de un tercero la subsistencia del nombramiento de herederos o legatarios, ni la designación de las porciones en que hayan de suceder cuando sean instituidos nominalmente* (KZeko 670. art.). Arau hori zehaztuz, hurrengo arauak zera dio: *podrá el testador encomendar a un tercero la distribución de las cantidades que deje en general a clases determinadas, como a los parientes, a los pobres o a los establecimientos de beneficencia, así como la elección de las personas o establecimientos a quienes aquellas deban aplicarse* (KZeko 671. art.). KZeko 831. artikulua malgutzen hasi da aipatutako bi artikuluek ezarritako zurruntasuna, hala ere.

1.-Bizkaiko foru zibilean honela egituratu da:

(1) Oro har, 32-48. atalek arautzen dute komisario bidezko testamentua:

(1.1) **Kontzeptua:** *Testamentu-egileak eskuordeko bati edo batzuri eman diezaioke oinordekoa izendatu eta ondasunak banatzeko ardura, eta ondasunon oinordetza-eskualdaketa dela eta, berari dagozkion beste ahalbide guztiak* (EHFZZIko 32. atala).

(1.2) **Forma:** *Eskuordekoa Eskribau aurrean egindako testamentu bidez izendatu behar da. Senar-emazteek, ezkondu*

aurretik zein ezkondu ostean, elkar izenda dezakete eskuordeko ezkontza-hitzarmenean edo oinordetza-itunean. "Alkar-poderoso" deritzo senar-emazteen arteko izendapen horri (EHFZZLko 33. atala).

(1.3) Gaitasuna: *Eskuordeko izendatutakoak behar den besteko gaitasuna izan beharko du testamentua egiteko poderea gauzatzeko orduan. Oinordeko izendatutakoak jaraunsteko gai izan beharko du gauzatzeko horren orduan edo oinordetzailea hiltzen denean. Baldintzapeko zein fideikomiso-izendapenak kanpoan geratzen dira (EHFZZLko 34. atala).*

(1.4) Ezaugarriak: *Eskuordekoaren ardura borondatezkoa eta dohainekoa izango da beti eta dagozkion ahalmenak, amankomunekoak zein baterakoak egiteko izan, norberarenak eta eskualdaezinak dira (EHFZZLko 39. atala).*

(1.5) Eskuordekoaren ahalmenak:

(a) Eskuordekoak eskuordetzaileak poderea ematerakoan berariaz agindutakoari zehatz jarraituaz beteko du bere ardura eta, berariaz agindu gabekoetan, Foru honetako aginduen arauera oinordetzaileari dagozkion ahalmenak izango ditu (EHFZZLko 35. atala).

(b) Inbentarioa: Edonola ere, eskuordekoak oinordetzaren ondasun, eskubide, zor eta betekizun guztien zerrenda egin beharko du behin eskuordetzailea hil eta eskuordeko izendatu duela jakiten duenetik sei hilabeteko epe barruan, eta oinordeko ustezkoak zerrenda horrek dioenaren jakitun jarri beharko ditu (EHFZZLko 36. atala).

(c) Eskuordetzailearen testamentua errebokatzea: Eskuordekoak ezin izango du eskuordetzailearen testamentua osorik edo bere zatirik ezereztu, horretarako baimena berariaz eman ez baldin badio behintzat (EHFZZLko 37. atala).

(d) Eskuordetzailearen ondasunak eskuratzea: Eskuordekoak, oinordetzaileak testamentu bidez eman diezaizkion ondasunak beretzat har ditzake, baita testamenturik gabeko oinordetzan edo testamentu-poderca gauzatu ezean legozkiokeenak ere. Hartukizunok 62. eta 64. ataletan agindutakoei lotuta egin beharko dira (EHFZZLko 38. atala).

(e) Albazea eta kontulari-banatzalea izendatzea: Eskuordekoak eskuordetzailearen jarauntsiaren albazea eta kontulari-banatzalea izenda ditzake (EHFZZLko 39. atala).

(f) Jaraunspena ordezkatzeta: Oinordetzara deitu eta jarauntsia onartu bitartean, testamentu-egileak testamentuan bertan izendatutako pertsona izango da

jarauntsiaren ordezkari eta administratzaile, eman diezaizkion ahalmenekin eta ezarri diezaizkion erantzunbeharrekin. Inor izendatzen ez bada, alargunak ordezkatu eta administratuko du jarauntsia eta, alargunik ezean, eskuordekoak berak (EHFZZLko 40. atala).

(g) Tutoretza sustatzea: Eskuordekoa oinordetzailearen adingabeko edo ezgai diren seme-alabei eta gainerantzeko horrelako ondorengoei tutoretza edo kuradoretza jartzera behartuta dago (EHFZZLko 42. atala).

(h) Usufruktua: Testamentu-egileak bestelakorik agindu ezean, bakarrik edo beste batzuekin batera eskuordeko izendatutako alargunak, testamentu egiteko poderea erabili arte, ondasuntza guztiaren gozamenerako eskubidea izango du, bermerik jarri behar izango ez duela (EHFZZLko 105.2. atala). Legea indarrean jarri aurretik emandako testamentua egiteko podereetan ezkontidea eskuordeko izendatu bada, bizi den artean gozamina izateko eskubidea aitortuko zaio, podere hori erabiltzeagatik iraungiko ez dena (EHFZZLko Hirugarren aldi baterako erabakia).

(1.6) Kargua egikaritzeko modua:

(a) Eskuordekoak bat baino gehiago badira: Eskuordekoek amakomunean ihardungo dute, testamentuan bertan besterik adierazten ez bada. Gehiengoz hartuko dituzte erabakiak eta, berdinean, lehenengo izendatutakoak erabakiko du (EHFZZLko 43. atala).

(b) Kargua egikaritzeko epea: Eskuordetzaileak testamentu-poderea gauzatzeko epea ezar dezake. Eskuordekoa alarguna balitz, poderea eperik gabe edo bizialdirako eman diezaioke. Eperik jarri ezean, testamentu-egilea hil zenetik, edo epaileak hil dela adierazten duenetik, urtebetekoa izango da, ondorengo ustezko guztiak gara-adinekoak badira; ez badira, gara-adinera denak heltzen direnean hasiko da epe hori, ondorengook burujabe egitea ez dela nahikoa izango horretarako (EHFZZLko 44. atala).

(c) Eskuordekoak nor diren xedatzeko egintzak egin biratean utzitako ondasunek duten egoera: Oinordetzara deitu eta jarauntsia onartu bitartean, testamentu-egileak testamentuan bertan izendatutako pertsona izango da jarauntsiaren ordezkari eta administratzaile, eman diezaizkion ahalmenekin eta ezarri diezaizkion erantzunbeharrekin. Inor izendatzen ez bada, alargunak ordezkatu eta administratuko du jarauntsia eta, alargunik ezean, eskuordekoak berak (EHFZZLko 40. atala). Testamentu-poderea gauzatu arte, oinordetzailearen

seme-alabei eta horretarako legezko eskubidea duten ondorengo guztiei mantenua zor zaie jarauntsiondasunen etekinen kontura, horretara behartutako pertsonarik ez badute (EHFZZLko 41. atala).

(d) Xedatzeko egintzak: Eskuordekoak ekintza edo eskritura bakarrean edo bat baino gehiagotan gauza dezake testamentu-poderca, testamentu-egileak besterik agindu ezean (EHFZZLko 45. atala). Eskuordekoak, inter vivos edo mortis causa ekintzetan gauza dezake testamentu-poderea, ondasun guztietarako edo batzurentzako, legeak testamentu-egile ororentzat ezartzen dituen mugak baino ez dituela izango. Alargunak bere testamentuan gauza dezake hildakoak emandako testamentu-poderea, baina bien seme-alaba eta ondorengoen artean baino ezingo du banatu. Horela bada, ezkontidearen izenean egindako banaketa ezeztagarria dela adieraz dezake, berariaz, eskuordekoak (EHFZZLko 46. atala).

(e) Errebokaezintasuna: Eskuordekoak testamentu-poderea erabiliz egin ditzan banaketak ezeztu ezinekoak izango dira, aurreko ataleko azkenengo zatian araututakoan izan ezik (EHFZZLko 47. atala).

(1.7) Iraungitzea: *Testamentu-poderea honakootan iraungiko da: 1. Gauzatzeko jarri zaion epea bukatutakoan. 2. Eskuordekoari heriotza, ezintasuna edo ezgaitasuna etorri zaiolako. 3. Eskuordekoa ezkontidea bada, testamentu-poderea egin ostean ezkontzaren banantze, baliogabekotze edo dibortzio-eskea egin dadinean. 4. Eskuordekoa ezkontidea izanda, hau berriro ezkondu dadinean, beste batekin ezkondu-bizimodua daramanean edo ezkontzatik kanpo seme-alabarik izan dezanean, testamentu-egileak besterik adierazi ez badu behintzat. 5. Uko egiteagatik. 6. Jaraunsteko ezgaitzen duten gaiztakerietakoren bat egiten badio eskuordekoak oinordetzaileari edo bere ondorengoei. 7. Poderean bertan agertzen den beste arrazoiren bategatik. 8. Podere-emaileak ezeztatuta (EHFZZLko 48. atala).*

(2) Komisarioa, ezkontidea bada, kontuan hartzen da **ondasunen foru-komunikazioan:**

(2.1) Oinordetzaileak eskuordekoa izendatu badu ondasunek erkidegoan jarraituko dute oinordekoa izendatu arte. Ondasunok horrela jarrai dezaten artean alarguna izango da, testamentu egileak bestelakorik agindu ezean, jaraunspenaren ordezkari bakarra eta ondasuntza guztiaren administraria, izendatutako oinordekoek jarauntsia onartzen ez duten bitartean. Testamentu-egileak bestelakorik agindu ezean, bakarrik edo beste batzuekin batera eskuordeko izendatutako

alargunak, testamentu egiteko poderea erabili arte, ondasuntza guztiaren gozamenerako eskubidea izango du, bermerik jarri behar izango ez duela (EHFZZLko 105. atala).

(2.2) 104. atalean zehaztutakoaren salbuespen bezala, eskuordeko izendatutako alargunak bere buruari esle diezaioke ondasun guzti-guztien erdia, beste erdia hildakoaren oinordekoentzako utzita, tronkaleko ondasunak gorde beharrari kalte egin gabe. Oinordetzaileak izendatutako kontulari-banatzailerik badago, eskuordeko ezkontideak, kontulari-banatzaiarekin batera, eratutako ondasun-erkidegoa ezabatu eta kitatu egin lezake, 108. atalean zehaztutako eran, oinordetzailearen oinordetzari berari izendatutako ondasunak geratuko zaizkiola. Berdin joka lezake ustezko oinordekoekin edo, bestela, bere eskariz emandako epai bidez ere egin lezake (EHFZZLko 106. atala).

(3) **Senipartea kalkulatzeko:** Testamentu-podererik balego, senipartea zehazteko ondasunen balioa honakook aterako lukete: 1. Eskuordekoak, jarauntsia berari ez badoakio. 2. Eskuordekoak, oinordetzaileak izendatutako kontulari-banatzaiarekin batera. 3. Eskuordekoak, oinordeko ustezkoekin batera. 4. Epaiaren erabakiz (EHFZZLko 64. atala).

2.-Arabako foru zibilak, podere osoko gozamina arautzen du:

(1) **Kontzeptua eta edukia:** Podere osoko gozamenaren arabera, gozamen-dunari dagokio, intervivos edo mortis causa ekintzaz, gozamen-jartzailearen seme-alaba edo ondorengo guztien nahiz zenbaiten artean ondasun guztiak zein ondasun batzuk dohain banatzeko ahalmena, gozamen-eskubidearen berezko edukiri dagokionaz gain (EHFZZLko 140. atala). Aurreko atalean erabakitakoa gorabehera, testamentu egiteko askatasuna erabiliaz, gozamen-jartzaileak esku osoa izango du podere osoko gozamen-dunak ondasunen jasotzailea edo jasotzaileak nortzuren artean izenda ditzakeen aipatzeko eta, halaber, podere osoaren edukia zabaldu, murriztu nahiz zehatzagotzeko (EHFZZLko 141. atala).

(2) **Ezaugarriak:** Podere osoko gozamina bere-berezko eskubidea da. Ezin izango da inolako bidez ez inorendu ez zorpetu, gozamen-jartzailearen baimenik gabe (EHFZZLko 142. atala).

(3) **Berariazko aipamenik gabe baztertzea:** Gozamen-dunak podere osoko gozameneko ondasunak zenbait senipartedunen artean bana baditzake, senipartedunok baztertutzat joko dira, gozamen-dunak banatu gabeko ondasunekiko egoki dakiekeen eskubidearen kalterik gabe (EHFZZLko 143. atala).

(4) **Ondasunen gastuak:** *Podere osoko gozamenpeko ondasunei dagozkien andega-konponketa, gastu, zorpe nahiz zerga guztiak gozamendunaren kontura izango dira, ondasunok bana ditzan artean (EHFZZLko 144. atala).*

(5) **Fidantza:** *Podere osoko gozamendunak ez du bermerik ezarri beharrik izango, oinordetzaileak besterik agindu izan ezean (EHFZZLko 145. atala).*

3.-Gipuzkoako foru zibilean, EHFZZLko 164. eta hurrengo atalek arautzen dute oinordetza komisario bidez ordenatzea.

(1) **Kontzeptua eta betekizunak:** *1. Kausatzaileak ezkontidearen esku utz dezake baserriaren eta hari lotutako ondasunen oinordea izendatzeko ardura. Nahi izanez gero, gainerako ondarearen oinorde izango dena ere izendatzeko ardura eman diezaioke. 2. Komisarioa honako bi egoera hauetan bakarrik izendatu ahal izango da: 1.a Kausatzaileak pertsona multzo bat izendatu bazuen horien artean oinordeak izenda daitezzen. 2. Halakorik izendatu ez eta kausatzaileak nahitaezko jaraunsleak utzi baditu. 3. Aurreko zenbakiko 2. puntuan adierazitako kasuan, komisarioak izendatu beharko ditu oinordekoa edo oinordekoak kausatzailea hil den unean nahitaezko jaraunsle diren pertsonen edo horien ondorengoen artetik, nahiz eta aurrekoak oraindik bizi eta ondorengo horiek kausatzailearen heriotza ondoren jaiotakoak izan. Azkenean komisarioak horietako norbait baserriaren eta hari lotutako ondasunen onuradun izendatzen badu, bidezkoa izango da liburu honetako 156. Atalean jaso bezala senipartearen konputotik kanpo uztea (EHFZZLko 164. atala).*

(2) **Forma:** *Komisarioa notario aurrean edo eskritura publikoan egindako testamentu irekiaren bidez izendatu beharko da. Eskritura hori ezkontzako hitzarmeneko eskritura ere izan daiteke (EHFZZLko 165. atala).*

(3) **Komisarioaren ahalmenak eta betebeharrak:**

(3.1) *1. Komisarioak kausatzaileak ezarritakoaren arabera beteko ditu bere eginkizunak. 2. Bestela, kausatzaileak izango zituzkeen ahalmen berberak izango ditu, foru honetako aukerak barne. Dena dela, komisarioak ezingo luke errebokatu kausatzailearen testamentua, ez osorik ez zati batean, horretarako espresuki baimendua izan ez balitz (EHFZZLko 166. atala).*

(3.2) **Inbentarioa:** *1. Kausatzailea hil edo epaileak hildakotzat jo eta sei hilabeteko epean, komisarioak oinordetzan dauden ondasun, eskubide, karga eta betebeharrak guztien inbentarioa*

egin beharko du, eta oinordeko izan daitezkeenei horren edukiaren berri eman beharko die. 2. Inbentario hori eskritura publiko bihurtuko da oinordeko izan daitekeen edozeinek hala eskatzen badu (EHFZZLko 167. atala).

(3.3) Administratzea: 1. Oinordetza aditzera ematen eta jaraunspena onartzen den arte, kausatzaileak horretarako izendatu zuen pertsonak administratuko du ondasuntza. 2. Inor izendatu ezean, komisarioak berak hartuko du eginkizun hori (EHFZZLko 168. atala).

(3.4) Kargua egikaritzeko epea: 1. Kausatzaileak epe jakin bat jar diezaioke komisarioari bere ahalordea burutu dezan. Ezkontidea ondasunen biziarteko gozameduna ere baden kasuetan, epe hori haren bizitza guztirako izan daiteke gozamenean utzitako ondasunei dagokienez. 2. Mugatu ez bada, epea urtebetekoa izango da kausatzailea hiltzen denetik edo epaileak hildakotzat jotzen duenetik hasita, oinordeko izan daitezkeen guztiak adin nagusikoak badira edo burujabeturik badaude; bestela, oinordekorik gazteenak hemezortzi urte betetzen dituenetik edo burujabetzen denetik hasita (EHFZZLko 169. atala).

(3.5) Kargua egikaritzeko modua: 1. Komisarioak eskritura publiko bidez egin dezake oinordearen edo oinordeen izendapena. Horrez gain, bere testamentuan ere izenda ditzake, baldin eta biziarteko gozamenean dituen ondasunak xedatzen baditu eta horiek xedatzeko epe laburragorik ezarri ez bazaio. 2. Komisarioak eskritura publikoan egindako ordenazioa erreboka ezina izango da. Testamentuan egindakoa errebokagarria izango da hura hil artean (EHFZZLko 170. atala).

(4) Iraungitzea: *Testamenturako ahalordea iraungi egingo da: 1.a Horretarako ezarritako epea bukatzen bada. 2. Komisarioaren geroztikako heriotza, ezintasun edo ezgaitasuna gertatzen bada. 3. Ahalordea eman ondoren banantzeko, dibortziazteko edo ezkontza deuseztatzeko demanda aurkezten bada. 4. Komisarioa geroztik ezkontzen bada edo gertatzez ezkonbizitza egiten badu, kausatzaileak espresuki aurkakoa adierazi zuenean izan ezik. 5. Uko eginez gero. 6. Komisarioa kausatzailearekiko edo haren ondorengoekiko oinorde izateko ezduintasuna dakarren kausaren batean sartu bada. 7.a Ahalordean aurreikusitako kausez. 8. Errebokazioz (EHFZZLko 171. atala).*

4.-Nafarroako ordenamenduan honela arautzen da fiduziario-komisario figura, 281-288 legeetan.

KONTZEPTUA: Testatzaileak, testamentu bitartez (*anaitasun testamentuak dira ohikoenak Nafarroan*), kapitulazio bidez, edo

beste eskritura publiko bitartez (*eskritura publikoan jasotako aldebakarreko edo aldeanitzeko edozein egintzak balio du: ezkontza kapitulazioak; "propter nuptias" donazioak; ezkontide, ahaideen edo arrotzen arteko donazioak; dotazioen eta doteen zehaztapena eta entrega; baina, eskritura publikoaren forma hau ez da beharrezkoa fiduziario-komisarioak izendatzeko: testamentu olografoak, lekukoen aurrean egindako izendapena, etab.*), Fiduziario-komisario bati honako botereak eskuordetu diezazkioke, bere oinordetza antola dezan bere hil ostean:

- a) Jaraunsle edo donazio hartzaile unibertsala izendatu;
- b) Legatuak eman eta dotazioak zehaztu.

Beti ere, eskuordetzaren mugak errespetatuz, eta titulu honetan zehaztutakoaren arabera jardunez gero.

Eskuordetza hau, bai ezkontideari, bai beste pertsona bati egin diezaioke (fiduziario-komisario bakarra izendatuz), bat baino gehiago izenda ditzake, mankomunatuak (fiduziario-komisario bat baino gehiago izendatuz, haien artean lan egin dezaten batera jardunez) edo jarraika dei ditzake, ordezen baten bezala (fiduziario-komisario bat baino gehiago izendatu, lehentasun bat ezarriz zerrendan, eta haietariko batek errenuntziagatik edo eta beste ezintasun batengatik ezin badu jardun, zerrendako hurrengoari egokituko zaio eskuordetza horretan jardutea).

Eskuordetza eraginkorra izan dadin honako baldintzak bete behar ditu: 1) kausatzailearen heriotza *conditio iuris* bezela; 2) Oinordetza, hein baten behintzat, antolatu gabe egotea; 3) Kausatzaileak, komisario-fiduziarioa izendatu ostean, isilbidez edo esanbidez botere hau ez errebokatzea.

DELEGAZIOA: Fiduziario-komisarioaren funtzioa txit-pertsonala da. Hala ere, funtzioaren exekuzioa bera eskuordetu daiteke, beti ere, botere egikaritzan testatzailearen borondatea errespetatzen bada. **ADIBIDEZ:** Kausatzailearen ondasun batzuen administrazioa beste pertsona batzuen eskuetan utz dezake, berari ondasun horien administrazioa bereziki deserosoa edo gogorra egite zaiolako; Kontadore-banatzaileak edo albazeak izenda ditzake testatzailearen ondasunen gaineko xedapenak egin ditzaten.

GAITASUNA: Fiduziarioa adin nagusia izan behar da bere eginbeharra egikaritzeko. Hau ezkontidea balitz, testamentua egiteko gaitasuna izatearekin nahikoa izango da.

Ezkontide alarguna berriz ere ezkontzen bada, fiduziario izateko eskubidea galduko du. Era berean, fiduziario izateko eskubidea galduko da, ezkontzaren baliogabetasun, banaketa edo dibortzio ebazpen bat egonez gero.

EGIKARITZA/AHALMENAK: Eskuordetza hau mankomunatua denean gehiengoz erabakiko da.

Hauek Ahaide Nagusiak balira, 145. legearen arabera erabakiko da (*adostasun batera heltzen ez badira, haiek aukeratutako, edo zerrendan haien ostean doazenen artean sorteo bat egin ondoren irten den, hirugarren ahaide batek lagunduko ditu erabakia hartzen, eta gehiengoz aukeratu beharko dute bi aukeren artean zein gailentzen den*).

Testatzaileak fiduziario izendatu izan balitu beste pertsona batzuk, bai bakarka, bai ezkontidearekin edo aurreko ahaideekin konkurrentzian, jaraunsele edo donazio-hartzaile unibertsalen izendapena, Ahaide Nagusiei buruz aritzen den 144. legeak zehazten duenaren arabera egin beharko da (*hau fiduziario-komisarioaren figurari atxekiko zaio: seme-alabak edo beste pertsona batzuk jaraunsele tituluz deituak direnean, ez daude aukeratzera behartuak, deitu dituzten pertsonetatik gazteena adin nagusia ez den artean*).

Fiduziarioak, eskuordetzaz gozatzean, testatzailearen jaraunspena berak egokien ikusten duen bezela banatzeko boterea dauka, era beran, kausatzailearen jaraunseleak izendatzeko ahalmena baitu. Eta hori gutxi balitz, kausatzailearen ondarea administratu ahal izango du hau xedatzeko ahalmena izanik, bai kausatzailearen eskaera espresuagatik, bai, ezkontide alargunari eta aurreko ahaideei begira, legearen aginduz. Era berean, baldintzak, mugak, nahi dituen beste xedapen egikaritu edo eta terminoak zehaztu ditzake kausatzaileak egingo balu bezela. Beti ere, honek guzti hori egiteko boterea eman badio, era orokor batean.

FORMA: Fiduziarioek eskuordetza testamentuan edo eskritura publikoan egikaritu behar dute. Azken kasu honetan, erreboka ezina izango da, 114. legean ezartzen dena salbuetsiz (*fiduziario-komisarioak eskritura publiko batean izendapenei buruzko bere borondatea adierazten du, eta bertan ondasunak transferitzen ditu hartzaile ezberdinen artean, dohaintzaren forma erabiliz. Honela, fiduziario-komisarioari hartzaileek onarpena eman dutela jakinarazten diotenean, hauek erreboka ezinak bilakatzen dira*).

PENDENTZIA- EGOERA: Fiduziarioak ezkontidea edo aurreko ahaideak direnean, haien eginbeharrak guztiz bete ez dituztenean, xedatu ez dituzten ondasunen administrazioa eta xedapen-boterea mantenduko dute. Egoera hau oso berezia da jaraunspen arruntaren barnean, kausatzailearen jaraunspenak ez baitauka jaraunslarik. Hau gertatzen da fiduziario-komisarioak oraindik ez duelako izendapenik egin, oraindik ez baita momentua heldu. Beraz, deituek oraindik ezin dute jaraunspena onartu, haien eskubidea oraindik ez baitute ziurtaturik.

Fiduziarioak beste batzuk balira, deituen arteko jaraunspen komunitatearen arauak aplikatuko dira, baina hauetariko bat ez-gaia edo adin-txikia denean, xedapen egintzak egikaritu ahal izateko fiduziarioaren baimena beharko da. Kasu honetan, fiduziarioak adin-txikiak edo ez-gaiak babesten ditu, gainontzeko deituek erabakiak hartzen dituztenean. Bestalde, deituak diren guztiak adin-nagusiak edo gaiak badira, arazorik gabe har ditzakete xedatzeko erabakiak. Hala ere, nahiz eta ondarea xedatu eta kudeatu dezaketen arren, hauek ezin dute ondasunen autoasignaziorik egin, komisario-fiduziarioak berari dagozkion izendapenak egiten ez dituen bitartean.

EXEKUZIO EZINTASUNA: Fiduziario bidezko jaraunse edo donazio-hartzaile unibertsalaren izendapena ezinezkoa balitz, fiduziarioaren heriotzagatik, errenuntziagatik, ezintasunagatik, edota beste arrazoiren batengatik; edota ezinezkoa balitz Ahaide Nagusien bidezko izendapena ere, eska daiteke seme-alaba nagusiaren izendapena. Hau ez balego, jaraunse izendatzeko, herentziatik baztertu ez dituzten edo errenuntziatu ez duten eta etxean bizi diren gainontzeko oinordekoak leudeke. Inork ez badu hau eskatzen, oinordetza legala zabalduko da.

IV.-BABESTUTAKO NEKAZARITZA- USTIATEGIEN OINORDETZA

Nekazaritza-erreforma eta garapenari buruzko Legeak, 1973ko urtarrilaren 12ko Dekretuz onartuak, familia-ustiategi eta ondare familiarrak arautzen ditu.

Familia-ustiategiei dagokienez, 19/1995 Legeak, uztailaren 4koak, Nekazaritza Ustiategiak Modernizatzeari buruzkoak II. azken xedapenak egokitutako arauen arabera, lurrak erabiltzeko ahalmena lor daiteke:

(1) **Kontzesio administratiboa eskuratuta:** lur horien oinordetza antolatzeko, 32. artikulua zera dio: *1. Por muerte del concesionario se transmitirá la concesión al cónyuge viudo no separado legalmente o de hecho, siempre que esta última situación se demuestre fehacientemente y, en su defecto, a uno de los hijos o descendientes que sea agricultor.*

2. Cuando existieren varios descendientes agricultores, sucederá en la concesión el que haya sido designado por el concesionario en testamento y, en su defecto, el elegido de común acuerdo entre ellos. Si no hubiese acuerdo se transmitirá al que

viniere cooperando habitualmente en el cultivo de la explotación, y si fueren más de uno, será preferido el que hubiere cooperado durante más tiempo.

3. A los efectos de la partición de la herencia se considerará que sólo forma parte del caudal relicto por el concesionario el importe de lo que se determina en el apartado 3 del artículo 33.

4. En defecto de cónyuge viudo no separado legalmente o de hecho, ni hijos, ni descendientes, la concesión se transmitirá al designado por el concesionario en su testamento o al que fuere judicial o notarialmente declarado heredero, si fuere agricultor, y si lo fueren varios, se observará el orden de preferencia establecido en el apartado 2 de este artículo.

5. En todo caso deberá practicarse la notificación de la transmisión, a la que hace referencia el apartado 2 del artículo 31.

(2) Jabetza eskubidea eskuratuta, 35. artikulua zera dio lur horien oinordetza antolatzeke,: *Por muerte del propietario la explotación no podrá ser objeto de división, y la transmisión mortis causa de la misma se ajustará a lo dispuesto en el Código Civil o en las disposiciones de igual carácter en las Comunidades Autónomas que sean de aplicación.*

Familia ondareei dagokionez, Legeko 41. eta 42. artikulua izan behar dira kontuan. Lehenak, bere lehen leerroaldean zera dio: *al fallecimiento del titular del Patrimonio familiar se deferirá la sucesión de éste a la persona que aquél hubiese designado en su testamento. Si al fallecimiento del causante existiesen herederos forzosos, sólo será válida la designación del sucesor cuando recayere en algunos de ellos, a menos que los no designados hubieren incurrido en justa causa de desheredación (...).*

V.-ERRENTAMENDUEI BURUZKO LEGEAK

(1) **Hiri Errentamendei** buruzko Legeak hauxe xedatzen du :

Artículo 33. Muerte del arrendatario. En caso de fallecimiento del arrendatario, cuando en el local se ejerza una actividad empresarial o profesional, el heredero o legatario

que continúe el ejercicio de la actividad podrá subrogarse en los derechos y obligaciones del arrendatario hasta la extinción del contrato. La subrogación deberá notificarse por escrito al arrendador dentro de los dos meses siguientes a la fecha del fallecimiento del arrendatario.

(2) **Landa Errentamenduei** buruzko Legeak ere antzeko arau bat ezarri du:

Artículo 24. Terminación del arrendamiento. El arrendamiento termina: ... (e) Por muerte del arrendatario, quedando a salvo el derecho de sus sucesores legítimos. En tal caso, a falta de designación expresa efectuada por el testador, los sucesores tendrán que escoger entre ellos, por mayoría, al que se subrogará en las condiciones y derechos del arrendatario fallecido. Dándose esta última circunstancia, será necesaria la correspondiente notificación por escrito al arrendador, en el plazo de un año desde el fallecimiento.

VI.-NOBLEZIA-TITULUEN OINORDETZA

Irakurri konstituzio-auzitegiak emandako honako epai hau: 1997ko uztailaren 3koa (*EBO* uztailaren 18koa eta urriaren 30ekoa). Baita ere, Auzitegi Gorenaren 1995eko apirilaren 18ko epaia (*RAJ* 3421) eta Kataluniako Auzitegi Nagusiaren 1995eko urriaren 2ko epaia (*RAJ* 8180).

VII.-IRAKURGAIK

1. Nekazaritza-ustiategia

BALLARÍN MARCIAL, Alberto (2001): “La sucesión *mortis causa* en la explotación agraria”, *Revista Jurídica del Notariado*, 9-30.

FOSAR BENLLOCH, Enrique (1963): “La explotación agrícola y el párrafo 2º del artículo 1056 Código civil”, *Anuario de Derecho Civil*, 377-422.

2. Familia-ustiategia

BADENAS CARPIO, Juan Manuel (2001): "Notas sobre el significado jurídico del protocolo familiar", *Actualidad Civil*, 777-795.

CALVO MEJIDE, Alberto (2001): "Concepto, forma y continuidad de la empresa familiar. Reflexiones sobre sus aspectos jurídicos", *Actualidad Civil*, 2001-4, 1261-1275.

3. Giza ugalketa

GÓMEZ-FERRER SAPIÑA, Rafael (1995): "Técnicas de reproducción asistida humana y Derecho de Sucesiones", *Revista Jurídica del Notariado*, 181. or.

4. Komisario bidezko testamentua

ASÚA GONZÁLEZ, Clara Isabel (1992): *Designación de sucesor a través de tercero*, Madrid, Tecnos.

CELAYA IBARRA, Adrián (1972): "El testamento por comisario", *Anuario de Derecho Civil*, 735-782.

5. Kontratu bidezko oinordetza

CASTÁN VÁZQUEZ, José María (1964): "Notas sobre la sucesión contractual en el Derecho español", *Anuario de Derecho Civil*, 367-381.